

# Aniztasunaren aldeko apustu sendoan beste urrats bat

IRENE ELORZA

Aurtengo Zinemaldian, bost sailetan ikusi ahal izango dira Euskal Herriko ekoizpenak. Inoizko oparoena eta anitzena izateko bidean da, beraz, 20 lan eskerrak. Horietatik hamalau osorik ala zatika euskaraz egindakoak dira. Aniztasuna ere azpimarratzeko kontua izango da aurtengo jaialdian, izan ere, dokumentalak, fikzioa, animazioa eta film laburrak izango dira ikusgai gaurtik aurrera. Euskal Zinemaren Irizar Sariaren epaimahaiaren presidentea Karmelo Vivanco izango da aurtengoa; Amaia Revueltarekin eta Olga Ruizekin batera hautatuko du Zinemaldian estreinatuko den ekoizpenik onena zein den.

Zinemira izango da oparotasun horren erakusle, hamabost film emango baitira Donostiako 66. Zinemaldian. Ana Schulz eta Cristóbal Fernández zuzendarien *Mudar la piel* filmak emango dio hasiera sailari. Locarnoko sail ofizialean estreinatu zenez, lehiaketaz kanpo dago filma. Espainiako Gobernuaren eta ETaren arteko bitartekaria izan zen Juan Gutierrezen eta Roberto Florez espioiaren arteko adiskidetasunaren inguruan hariltzen da filma. *Black is Beltza* izango da klausurako filma, Fermin Muguruza musikari, zuzendari eta ekoizleak zuzendutako animaziozko filma. Euskal zinemari ikusgarritasun handiagoa emate aldera, aurtengoa estreinekoz emango dira inaugurazioko eta klausurako filmak Kurasaal aretoan.

Euskal Zinemaren Galan, irailaren 25ean, emango diote Zinemira saria Ramon Agirre aktoreari. Victoria Eugenia antzokian egingo den ekitaldian, Josu Martinezen *Jainkoak ez dit barkatzen* estreinatuko da. Biharamunean, *EITB Galan, leku berean*, Víctor Cabacoren *Vitoria, 3 de marzo* proiektatuko da.



Black is Beltza.



Gure oroitzapenak.



Margolaria.



Jainkoak ez dit barkatzen.

Zinemira saila osatuko duten gairontzeko filmak honakoak dira: *Izaro* (Txuspo Poyo), *Lady off* (David Rodriguez Losadar), *La noche nos lleva* (David Gonzalez Rudiez), *Errementari* (Paul Urkijo), *Gallo* (Antonio Diaz Huerta), *Kutxak* (Juanmi Gutierrez), *Basque selfie* (Joaquin Calderon) eta *Bajo la piel de lobo* (Samuel Fuentes). Euskal Zinemaren Irizar saria lortzeko hautagaiak dira denak, beste zinema jaialdi batzuetan estreinatutakoak salbu: *Mudar la piel*, *Errementari* eta *Bajo la piel de lobo*.

Zinemiraz kanpo, Telmo Esnalen *Dantza* izango da aurtengoa Sail Ofizialean ikusi ahaliko den bertako lan bakarra, lehiaketatik kanpo. Bestalde, Koldo Almandozek Zuzendari Berriak sailean aurkeztuko du *Oreina*, eta Irizar sarirako lehiaren parte hartuko du. Perlak sailak, berriz, Raul de la Fuentearen eta Damian Nenoweren *Un día más con vida* filma erakutsiko du, Ryszard Kapuscinski kazetariaren Angolan egindako bidaia kontatzen duena. Gastronomiari lotutako Culinary Zinema sailean bi ekoizpen aurkeztuko dituzte: *Bihar dok 13* (Aitor Berziartua eta Ander Iriarte) eta *Y en cada lenteja un dios* (Miguel Angel Jimenez).

## Etxeko Kimuak

Zinemira sailaren barruan, Kimuak katalogoko film laburren aukeraketa ere izango da ikusgai. Zazpi lan ditu aurtengo bildumak: *592 metroz goiti* (Maddi Barber), *Ama* (Josu Martinez), *Ipurtargiak oraindik/Ancora lucciole* (Maria Elorza), *Espedizio handia* (Iban del Campo), *Kafenio Kastello* (Miguel Angel Jimenez), *Ez nazazue esnatu* (Sara Fantova), *Zain* (Pello Gutiérrez). Maddi Barberrek Zabaltegi-Tabakalera sailean erakutsiko du *592 metro goiti* bere film laburra, Irizar sarirako hautagaietako bat dena.



## Aktore ezinbestekoari aitortza

I.E.

Ramon Agirrek jasoko du aurtengo Zinemira saria. Datorren irailaren 25ean egingo diote aitortza ibilbide oparoa bezain luzea izan duen aktoreari. Euskal Zinemaren Gala Victoria Eugenia antzokian egingo dute, eta bertan estreinatuko da *Jainkoak ez dit barkatzen* filma. Donostia Zinemaldiak eta IBAIA eta EPE/APV ekoizleen elkarrekin bere ibilbidea euskal zinemagintzan ondu duen pertsona esanguratsu bati ematen diote ohorezko sari hau. Aurreko urteetan, 2009an hasi eta 2017ra bitartean, Imanol Uribe, Alex Angulo, Elias Querejeta, Michel Gaztambide, Juanba Berasategi, Pedro Olea, Karmele Soler, Ramon Barea eta Julia Juaniz izan dira saridunak. Ramon Agirrek (Donostia, 1954) Donostiako Antzerti arte dramatikoko eskolan egin zituen lehen urratsak. 1980ko hamarkadan zinemarako lehen lanak egin zituenetik -27 horas eta *Ander eta Yu*, besteak beste- ezin konta ahala pertsonaia gorputzu dituzten zinemaren, antzerkian zein telebistan. Horren adibide gisa, aurtengo Zinemaldian lau filmetan ikusi ahal izango da Agirreraren lana: *Oreina*, *Black is Beltza*, *Errementari* eta *Bajo la piel de lobo*.

# SANTELMO

## MUSEOA

**EUSKAL GIZARTEA ATZO ETA GAUR**

**LA SOCIEDAD VASCA DE AYER Y DE HOY**

**LA SOCIÉTÉ BASQUE D'HIER ET D'AUJOURD'HUI**

**THE BASQUE SOCIETY OF THE PRESENT AND THE PAST**

Zuloaga Plaza, 1  
20003 Donostia / San Sebastián  
T (00 34) 943 48 15 80  
[www.santelmomuseoa.eus](http://www.santelmomuseoa.eus)  
@santelmomuseoa